

Aldatu mundua,

mundua aldatu egiten da



San Frantzisko Xabierkoa
mundua aldatu
zuen pertsona bat



ALBOAN



Compañía de Jesús



V CENTENARIO
DEL NACIMIENTO DE
FRANCISCO DE JAVIER



Munduaz dugun ikuskera aldatu egiten da

“Munduaren transformazioa gure adimenaren transformazioarekin hasten da, eta gure adimenaren berrikuntza, berriz, buruan sartzen ditugun irudien transformazioarekin: hormetan zintzilikatutako irudien eta bihotzean ditugun irudien transformazioarekin”.

Ward Kaiser

XVI. Mendea

Mercator-en proiektzioa

Mercator mapa 1569. urtekoa da eta Gerardus Mercator kartografo flandestarrak egin zuen, nabigatzeko tresna erabilgarria sortu nahi baitzuen.



Gaur egun

Peters-en proiektzioa

Peters mapa Arno Peters ikertzaile alemaniarrek egin zuen 70eko hamarkadan, munduko mapen irudi eurozentristak kezkatzen baitzuen.



Gogoeta eginez gero eta historian elkarrengandik urrun dauden bi garai sakontasunez alderatuz gero, gizakion eginkizun-esparru guztietan aldaketak ageri direla ikusiko dugu.



Aldarazten gaituzten aldaketak

XVI. Mendea

- 500 milioi biztanle munduan
- Errege-erreginak eta noblezia
- Kleroa
- Burgesia
- Nekazariak
- Monarkia absolutuak
- Gerrak, lurralde handiagoak bilatzeko
- Nekazaritza eta abeltzaintza
- Salgaien merkataritza
- Ibilbide komertzial berrien bilaketa
- Humanismoa
- Errenazimentua
- Espainiako erregea: Karlos Espainiako I.a eta Alemaniako V.a.
- Portugaleko erregea: Joan III.a
- Galileo Galilei
- Nicolás Copérnico
- Miguel Ángel
- Miguel de Cervantes
- William Shakespeare
- Juan Sebastián Elcano
- Fernando de Magallanes



Biztanleak



Gizartea



Egoera politikoa



Ekonomia



Mugimendu artistikoak



Pertsonaia garrantzitsuak

Gaur egun

- 6.000 milioi biztanle baino gehiago munduan
- Goi-klasea
- Erdiko klasea
- Talde baztertuak
- Demokraziak
- Gatazka armatuak, arrazoi ekonomikoak direla-eta...
- Transnazionalen hedapena
- Herrialdeen, lurraldeen eta abarren artean hitzarmenak lortu nahi izatea
- Abangoardismoa
- Postmodernismoa
- Marie Curie
- Margaret Mead
- Mary Robinson
- Aung San Suu Kyi
- Vandana Shiva
- Arundhati Roy
- Marina Silva
- Shirin Ebadi
- Gabriela Mistral



Gizarte-aldaketak

XVI. mendean pertsona bakoitzaren gizarte-klaseak bizimodu eta bizitza-erritmo jakinak ezartzen zituen.

Biztanleriaren gehiengoa nekazariak ziren, eta bizimodu gogorra zuten.

Zer jaten zuten? Egunean behin ogia jaten zuten tipularekin, baratxuriekin, gaztarekin eta, orobat, lekaleekin eta barazkiekin. Ez zuten apernas haragirik eta arrainik jaten.

Zertan jarduten zuten? Bai gizonezkoek bai emakumezkoek laborantzan jarduten zuten, urtaroen eta uzten arabera. Gainera, emakumezkoak etxea, seme-alabak etab. zaintzeaz arduratzen ziren. Inork nahi ez zituen lanak atzerritarrek egiten zituzten.

Nola jzaten ziren? *Gizonezkoak:* galtzamotz lasaiak, mihisezko alkandora, kapa oso latza eta kapelua. *Emakumezkoak:* gona lisoa, alkandora, lepoko zapia sorbalden gainean edo burua estaliz (alargunen eta emakume edadetuen kasuan) eta, beroki gisa, artilezko mantuak. Oinetako gisa espartinak edo abarkak erabiltzen zituzten.



Nekazalgoa



Noblezia

Zer jaten zuten? Ogia, ehizeko edo behiaren haragia, arraina (bakailua eta sardina gazituak) eta barazkiren bat.

Zertan jarduten zuten? *Gizonezkoak:* lurraren administrazioan, ehizaldian eta gerrako kontuetan jarduten zuten. *Emakumezkoak:* berriz, etxeko administrazioan, seme-alaben hezkuntzan eta bordatuan aritzen ziren.

Nola jzaten ziren? *Gizonezkoak:* jipoia, galtzak, zaia edo zamarra. *Emakumezkoak:* kanpai-formako lurrerainoko soinekoak, kortsea, mahuka zabalak eta lepo itxiak.

Orduan, gaur egun bezala, pertsona guztiek ez zituzten eskubide berdinak, klaseen arteko aldeak handiak ziren.



Aldaketak pertsonen baitan: Frantzisko Xabierkoa, XVI. mendeko pertsona...

- Frantzisko Jaso Azpilikueta Nafarroako Xabierko gazteluan jaio zen, 1506an. 5 anai-arreben arteko gazteena izan zen, familia noble batean.
- 19 urte zituela Parisa joan zen, unibertsitatean ikastera. Ignazio Loiolakoarekin eta beste kide batzuekin elkartu zen, eta Jesusen Korpainia sortu zuten.
- Indiaraino, Indonesiaraino eta Japoniaraino iritsi zen, eta hainbat leku, pertsona, kultura eta hizkuntza ezagutu zituen.
- 1552an hil zen, 46 urte zituela.
- Alaia zen, pertsona ahulenengatik arduratzen zen, kulturen arteko aldeak errespetatzen zituen eta bidegabekeriaren aurkako jarrera irmoa zuen.



... haren bizitza aldatu zuena



| | |
|--|--|
| Lekuz aldatu zen | Europa utzi eta Asiara joan zen. |
| Bizitza beste pertsona batzuekin partekatu zuen | Nobleziaren artean eta unibertsitate-munduan egotetik, urruneko herrialdeetan eta ahaztutako jendearekin egotera: gaixoekin, esklaboekin, presoekin... |
| Jardueraz aldatu zuen | Ikastetik eta liburu artean egotetik, bidaiatzera eta jendearekin bizitzera |
| Aisialdia betetzeko modua aldatu zuen | Aisialdia kirola egiten ematetik, denbora jendearekin ematera... |
| Janzkera aldatu zuen | Arropa dotoreak janztetik, mantu beltz saretua janztera... |

Bizitzeko modua aldatu zuen

Hura bezalako zenbat pertsona ezagutzen dituzu gaur egun?



Denboran emandako aldaketak: egun bat ... (r)en bizitzan

Gure eguneroko bizimodua antolatzeko modua desberdina da gure garaiaren, adinaren, familia-erantzukizunen, sexuaren eta herrialdearen arabera.



duela 500 urte, zertan ematen zuten denbora?



Frantzisko Xabierkoaren egun bat, gaztea zenean

Emakume nekazari baten eguna

| | | |
|--------|--------------------------------|--------|
| 5 ordu | Ikasketak • Lana | 8 ordu |
| 2 ordu | Oinarrizko beharrak | 1 ordu |
| 6 ordu | Atsedena eta aisialdia | 1 ordu |
| 2 ordu | Joan-etorriak | 3 ordu |
| 0 ordu | Beste pertsona batzen zaintzan | 5 ordu |
| 9 ordu | Lo egiten | 6 ordu |



Gaur egun, zertan ematen dugu denbora?



15 urteko gazte baten eguna

Familia erantzunkizunak dituen emakume baten eguna

| | | |
|--------|--------------------------------|----------------------|
| 8 ordu | Ikasketak • Lana | 8 ordu |
| 2 ordu | Oinarrizko beharrak | 1 ordu eta 30 minutu |
| 4 ordu | Atsedena eta aisialdia | 30 minutu |
| 1 ordu | Joan-etorriak | 1 ordu |
| 0 ordu | Beste pertsona batzen zaintzan | 6 ordu |
| 9 ordu | Lo egiten | 7 ordu |



Bidaia zaharrak eta bidaia berriak

XVI. mendean merkataritza eta marinelak bidaiatzen zuten batez ere urruneko lurretara, Amerikara eta Asiara, joateko bide berrien bila. Horien ostean, merkataritza, mirabeak, militarrik, nobleak... hasi ziren iristen. Pertsona horien artean misiolariak zeuden.

Xabierren lehenengo bidaia: Lisboatik Goara

| | |
|---------------------------------|---|
| Zenbat denbora behar izan zuen? | 1541eko apiriletik 1542ko maiatzera: 13 hilabete |
| Nola joan zen? | Galeoiz |
| Zer egin zuen? | Goara iritsi zenean, ospitaleko gaixoekin, presoekin, esklaboekin eta haurrekin eman zuen denbora. |
| Zer jende ezagutu zuen? | Harremanak jende guztiarekin hasten zituen: gobernatzailearekin, apaizekin, arrantza-tegi-inguruko Parabas indigenekin, jende xumearekin... |
| Zergatik joan zen? | Gainerakoak zerbitzatzen eman nahi izan zuen bizitza. |


XVI. mendeko beste bidaia batzuk eta euren garraiobideak

■ XVI-XIX. mendea. Afrikatik Amerikara.

■ XVIII-XX. mendea. India eta Txinatik Hegoafrika, Asia, Ozeania eta Amerikara.

■ XIX-XX. mendea. Europatik Amerika eta Australiara.

..... Xabierren bidaia.





Bidaia zaharrak eta bidaia berriak

Gaur egun bidaiak gero eta aruntagoak dira, garraiobideen aurrerapenei esker:

- Pertsonenak eta, orobat, salgaienak (ehun-gaienak, elikagaienak, etxetresna elektrikoak...).
- Hainbat garraiobide erabiliz (lurretik, itsasotik eta airetik: hegazkinez, trenez, itsasontziz...).
- Iraupen desberdinekoak (noizbehinkakoak, luzeak, behin betiko lekualdaketak...).
- Hainbat arrazoiengatik eginak (atseginagatik, lanagatik, ikasketengatik, ETA BAITA GATAZKENGATIK, PERTSEKUZIOENGATIK ETA ARRAZOI EKONOMIKOENGATIK ERE).

Gaur egungo migrazioak



■ 1950. urtetik. Herrialde behartsuetatik herrialde aberatsetara.
 ■ Barne mugimenduen egoera nagusiak.

Salgaien bidaien adibide bat: **jantzi baten ekoizpena**



| | |
|-----------------------|------------|
| Haria | • Korea |
| Kremlerak | • Txina |
| Oihalak | • Turkia |
| Jantzia egin | • Maroko |
| Artekari hornitzailea | • Espainia |
| Salmenta-puntua | • Espainia |



Komunikabideen alorreko aldaketak

XVI. Mendea

Posta

SFXren gutun bat:


"Zailtasunak ditudan arren, uharte hauetan zorientasuna aurki daiteke. Arriskuak eta porrotak arruntak izan arren, hemengo jendearekin nire bizitza partekatzeak hainbeste betetzen nau non aurki ditzakedan gauza negatibo guztiak orekatzen baititu".

Cochinen, 1548ko urtarrilaren 20an.
ERROMAKO LAUNEI BIDALITAKO ESKUTITZA.

IRISTEKO BEHAR IZANDAKO DENBORA: URTE ETA ERDI

Inprenta

- Liburu batzuk eta, orobat, aldizkariak inprimatzen ziren (informazio-orriak, historiekin eta gertaerekin).
- Unibertsitateko testuak.
- Ez zegoen guztien esku (jende askok ez zekien irakurtzen eta idazten).



Gaur egun

Askoz komunikabide gehiago ditugu:

Mugikorreko mezuetan erabili ohi dugun hizkerara itzuliz gero, Frantziskoren gutuna horrelako zerbait izan zitekeen:

Un SMS:

"Zailtsun ditudn arn, uhart hautn zorientasuna aurki daik. Ariskuak et porrotk arruntk izn arn, hemngo jndarkin nire bizitza partktzak hainbst bltzn nau non aurki ditzkedan gauza - guztlak orkatzn baititu."

IRISTEKO BEHAR DUEN DENBORA: 3 SEGUNDO



Irratia




Telebista



Idatzizko prentsa



Liburuak eta aldizkariak



Internet



Aldaketak bestelakoa den jendeari begiratzeko moduan

XVI. mendea

"Lehenik, inguru hauetako jende indiarri dagokionez, orain arte ikusi dudaren arabera oso jende basatia da, (...) eta ez dute arrazoitzen, (...) orain arte ikusi ditudan guztiak oso ezjakinak dira." (Frantzisko Xabierkoa)

"Bereziki aldaberak dira, gutxi hitz egiten dute eta ia ez dute egirik esaten" (Frantzisko Xabierkoa)

(San Frantzisko Xabierkoaren gutunak eta idatziak. BAC. 1979)

"Portugaldarrek ondo hartuko lukete indiar batek gogoz kontra eramatea portugaldar bat herrialdearen barnealdera? Indiarrek portugaldarren sentimendu berdinak dituzte." (Frantzisko Xabierkoa)

"Japoniarrek arrazoitzen dute gehien ikusi ditudan atzerriarren arteak hairbestereinokoa da haien jakingura, non inoiz ez baitzaizkie galderak amaitzen eta besteei beren galderei erantzuten geniena kontatzen baitzieten etengabe." (Frantzisko Xabierkoa)

(San Frantzisko Xabierkoaren gutunak eta idatziak. BAC. 1979)

Gaur egun

IMMIGRAZIOAREN IRUDIA ALDATU NAHI DUEN GAZTE-KOADRILA. (Madril)

KOLORETAN

Madrilgo +QUNI2 –"más que unidos" irakurtzen daltaldeak kirolaren, pinturaren, ipuinen eta dantzen bidez hainbat herrialdeetako ehun gazte inguru elkartzea lortu du, gizarteratzea eta aniztasunak eragiten duen aberastasuna lantzeko.

Gazte horiek frogatu nahi dute espazio egokiak sortuz gero kulturen arteko elkarbizitza posible dela.

"Gure helburua da integrazioaren alde gure harri-koskorra jartzea. Etorri gazteen inguruko estereotipoen aurka borrokatu nahi dugu. Ikusten gaituztenean, badirudi banda bortitzetan soilik pentsatzen dutela, baina guk espainiarren arazo eta ardura berdinak ditugu."

(www.masqueunidos.blogspot.com)

Iruñea, 2006ko urtarrilaren 13a

UDALTZAINGOAK XENOFobia-EKINTZA GEHIAGO EGIN DITUELA SALATU DU SOS ARRAZAKERIAK

Udaltzainen hainbat balizko nagusikeria-ekintza aipatzen dira txostenean, adibidez, "modu iraingarrian eta errespetugabean hurbiltzea", eta horrelako esaldiak erabiltzea: "zoaz zure herrialdera", edo "hegoamerikar nazkagarria".

2004ko uztailaren 4a

"(...)ko agenteek 18 urteko gazte bat atxilotu dute bart Gasteizen; atxilotua, (...), marokoarra da eta Arabako hiriburuko Alde Zaharrean diru-zorroak lapurtzea egotzi diote"

(www.sosracismo.org – "Arartekoaren gomendioa, poliziak hedabideei ematen dien informazioak xenofobia indar ez dezan")



Aldatzen diren eta aldarazten duten pertsonak



"Herri indigenen ikuskera haien erlazionatzeko moduan ikusten da. Lehenbizi gizakien artean, komunitate gisa. Bigarren lurrarekin, gure ama balitz bezala, ez baita salgai hutsa. Hirugarren naturarekin, haren atal baikara, ez haren jabe."

RIGOBERTA MENCHÚ (1959 -)

- Guatemalan jaioa. Maia-quiché indigena da.
- Haren haurtzaroa pobreziak, arraza-diskriminazioak eta errepresioak markatu zituen.
- Kanpaina baketsua hasi zuen Guatemalako erregimena eta nekazari indigenek jasaten zituzten giza eskubideen urraketa sistematikoa salatzen.
- Bakearen Nobel saria eman zioten 1992an.



"Hasieran, kautxuaren zuhaitzak salbatzeko borrokatzen nuela pentsatu nuen. Gero, Amazoniako oihana salbatzeko borrokatzen nuela pentsatu nuen. Orain, gizateria salbatzeko borrokatzen naizela dakit."

CHICO MENDEZ (1944-1988)

- Brasilen jaioa.
- Seringeiroen (kautxu-biltzaileak) sindikalista.
- Brasilgo Amazonia modu baketsuan defendatu zuen.
- 1987an Nazio Batuen Ingurumenerako Programaren nazioarteko saria jaso zuen.
- 1988an brasildar latifundisten sikarioek hil zuten.

"Mendi oso altu bat eskalatu ondoren, ohartzen gara beste mendi asko daudela eskalatzeko."



AMA TERESA KALKUTAKOAKO (1910-1997)

- Albanian jaioa.
- Misiolari joan zen Indiara.
- Pertsona pobrenei lagundu zien, eta Karitatearen Misiolariak sortu zuen.
- Bakearen Nobel saria eman zioten 1979an.

"Batzuetan, egiten duguna itsasoan tanta bat denaren pareko besterik ez dela sentitzen dugu, baina itsasoa gutxiago litzateke tanta bat faltako balitzaio."



"Gizateriak bakearen bidetik soilik desagerrarazi ahal izango du bortxakeria."

MAHATMA GANDHI (1869-1948)

- Indian jaio zen.
- Londresen zuzenbidea ikasi zuen.
- Hegoafrikan 20 urtez bizi izan zen.
- Mugimendu indiar indartsu eta baketsua antolatu zuen, britainiarren kolonizazioari aurre egin ziona.



NELSON MANDELA (1918 -)

- Hegoafrikan jaio zen.
- Zuzenbidea ikasi zuen.
- Bere herrialdeko apartheidaren eta arraza-diskriminazioaren aurka borroka egin zuen.
- Bere bizitzaren zati handi bat kartzelan eman zuen.
- Bakearen Nobel saria jaso zuen 1993an.



Gauzak aldatzen dituzten erakundeak eta haien erdiespenak

Boikota SCOTT PAPER COMPANY-ri:



- **80eko hamarkada:** Scott konpainia Papuako Irian Jaya oihaneko 900.000 hektareataz jabetu zen, Indonesiako Gobernuaren baimenarekin.
- **Ondorioak:** oihana deforestatzea eta 15.000 Ayu indigena halabeharrez lekualdatzea.
- **Antolatutako ekintza:** Survival Internacional erakundeak Scott konpainiari eskutitzak era masiboan bidaltzeko kanpainari ekin zion, proiektua alde batera utz zezaten.
- **Lorpena:** Scott-ek bertan behera utzi zuen proiektua, hilabete batzuk geroago.

Jende askok uste du boikot-kanpaina bat irabazteko beharrezkoa dela salmentak asko jaitsaraztea. Baina enpresen sentikortasuna oso handia da, eta salmenten %2 eta %5 arteko beherakada nahikoa da haien jarrera berrikusteko."

Ralph Nade, Estatu Batuetako kontsumitzaileen mugimendua.

Haurren esplotazioaren aurkako mundu mailako ibilaldia

- **Gertaera:** gutxi gorabehera munduko 300 milioi hurrek eta nerabek egiten dute lan.
- **Ondorioak:** ez dira joaten eskolara, gaixotasunak harrapatzen dituzte, esplotazio-egoera bizi dute...
- **Antolatutako ekintza:** 1998ko urtarrila. Munduan zehar ibiltzeko martxari ekin zioten haurren lanaren aurka, haurrak eta nerabeak buruan zituela.
- **Lorpenak:** haurren esplotazioari eta hezkuntzari buruzko munduko bi kongresu; 2.000 erakunde baino gehiagoren parte-hartzea; LANeren (Lanaren Nazioarteko Erakundea) 182. erabakia onartzea, haurren lanaren egoera okerrenei buruzkoa (3 urte baino gutxiagoan, 136 herrialdek berretsi zuten).



Javier Quispe, 13 urte.

- Limako Villa El Salvador-en bizi da, Perun.
- Gurditxoarekin gogor lan egiten du zamaketari gisa, goizeko 6etatik eguerdiko ordu bata arte, 2. Fruitu Merkatuan.
- Asturiasko Printzea eskolan ikasten du.

"Gustuko dut lan egitea. Batez ere lan gehien dagoenean, orduan diru gehiago irabazten baitut. Ikastearen eta lan egitearen artean erabaki beharko banu, biak aukeratuko nituzke. Gauza bakarra egin ahal izango banu, ikasi egingo nuke, bizitzan norbait izateko, bizitza osoan zamaketari ez izateko. Zamaketari izatea bizitzan norbait izatea den? ... Ez dakit".



Gauzak zer norabidetan aldatzea nahi dugu?

Bestelako mundua posible da



"Haur guztiek txikitatik heziketa ona eduki ahal izango balute, arazo asko konponduko liratezke eta gauzak askoz ere errazagoak eta justuagoak izango lirateke guztiontzat."

"Agian egunen batean ohartuko gara aldeak konpontzeko modu bakarra hitz egiteko esertzea dela; egun horretan ulertuko dugu elkar ulertzeko borondatea badugu armarik ez dugula behar."



"Haurtoentzako txertoak, erditze seguruak, sendagai eskuragarriak, prebentzio-programak... badakigu zerk funtzionatzen duen, egin dezagun ahal dugun guztia denontzat eskuragarri izan dadin."



"Herri eta kultura desberdinak, askotariko erlijioak, gizonak eta emakumeak, gazteak eta edadeleak... banatzen gaituenari arreta jar diezaiokegu, baina askoz gehiago da elkartzen gaituena!"



"Behar ez ditugun gauzen kontsumoa murrizten dugu, birziklatu eta berrerabili egiten dugu... beraz, basoez gozatzen, ibaietan eta itsasoan bainatzen, elikagai naturalak jaten, animalien mundua aztertzen... jarraitu ahal izango dugu... ez al da mundiala?"



"Etxean, eskolan, lanean, auzoan eta hauteskundeetan elkarri entzuten ikasten dugu, eta horrela norberaren jakituria besteenarekin elkartzen den mundua eraikitzen dugu..."

"Mundu horretan ez dugu zertan guztiok berdin pentsatu behar, ezta ados egon ere; mundu horretan desadostasunek gatazkara eraman gaitzake, baina gatazka horiek gobernatzetik elkarbizitza-ikasbideak lortzen ditugu."





Zure txanda:
eta zuk zer aldaketekin
egiten duzu amets?



Aldatu mundua, mundua aldatu egiten da